

Zuhertza  
euskarako elkarlanean

# BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 178. alea - 2013ko urria

## Festa giro bero-beroa Euskal Jaian





# SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13  
Tel.: 943 192 386  
Deba (Gipuzkoa)



# ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

**OFICINAS Y EXPOSICION:**  
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460  
E-mail: asketa@telefonica.net  
www.asketa.net

**ALMACÉN:**  
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9  
20850 MENDARO (Gipuzkoa)




# ABEL

Kristaldegia

Mota guztietako kristalak  
Lan kristalarasak


Ibaiondo, 2 • 48700 ONDARROA (Bizkaia)  
Tel. 946 833 269 • Fax 946 134 291 • E-mail: abel-kristal@euskalnet.net



# AUKERA INMOBILIARIA

www.aukera-inmobiliaria.com  
Aukerarik onena!

943 12 13 95

# URDAITEGIA AITTOLA HARATEGIA

Astillero, 3  
Tlfnoa.: 943 191 776  
20820 DEBA

# LENTZERIA

# Azoka

# MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA



# kutxa

zugandik zugana

# haizea

estetika

Tif. 943 029 607  
Iturkale 22, 1 eskubia  
sarrera Zesterokua plaza tik

# ISABEL FRUTADENDA

Sokagin Kalea, 2 beheka, 20820 DEBA  
943 029 186

**MAZKUNE**  
ERLATA PRODUZIOA ETA ZERBITZUA  
1975etik zuekin!



# ARKATZA

Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3  
943 192 057  
20820 DEBA

# Calbeton



JATETXEA

Agustín  
Larrañaga Elorza

Denboraldiko platera  
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea  
Tlfnoa.: 943 191 970  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

# L.A.

# LARRAMENDI ANAIK, S.L.

- LIXATUAK
- BERNIZATUAK
- PARKET
- PARKET FLOTANTEAK

Tlfnoa.: 943 021 959  
Mobila: 670 411 786  
Tel.-Fax: 943 191 782

ARTZABAL AUZOA  
20820 DEBA (Gipuzkoa)



# NORA

# HORTZ KLINIKA

Azpilgoeta 5  
Mendaro  
943 033 575

Lehen bisita, diagnostikoa eta  
aurrekontua doan.

- INPLANTEAK
- PADI-a (haurren programa)
- ESTETIKA
- ORTODONTZIA
- PERIODONTZIA
- ENDODONTZIA
- PROTESI FINKO / MUGIKORRA
- ODONTOLOGIA OROKORRA

Ifar kalea, 12 behea  
20820 Deba

Telefonoa: 943 19 13 83  
Aldizkariaren e-maila:  
[berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com)  
Elkartearen e-maila:  
[koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com)

**Argitaratzailea:**  
Zuhatza Euskara Elkarte

**Erredakzio taldea:**  
Goizane Aizpurua,  
Mikel Aizpurua,  
Koldo Aperribai,  
Izaro Aulestiarte,  
Nagore Dorronsoro,  
Lukax Dorronsoro,  
Xabier Laka,  
Migel M.Lekube (Lutxo)

Ina Oartzabal eta  
Eider Zulaika

**Azaleko irudia:**  
Erredakzio taldea

**Publizitatea:**

Joseba Escudero eta  
Juan Mari Gurrutxaga  
Tlfnoa.: 943 19 13 83  
943 19 26 94

**Logotipoaren diseinua:**

Iñaki Elosua

**Maketazioa:**

Leire Rubio

**Banaketa arduraduna:**

Juanma Oartzabal

**Inprimategia:**

Euskalinpri

**Tirada:**

1.400 ale

**Lege gordailua:**

SS-246-2009

ISSN 2171-7656

**OHARRA:**

*Berriketan-ek* ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitako enantzikizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 25 lerro izan beharko ditu eta [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) helbidera bidali beharko dira, hilabeteko azken astelehena baino lehen.

**ARGITARATZAILERAK**



**LAGURTZAILERAK**



Debako Udala



HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURAREN  
ERAKUNTZA  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA  
Viceconsejería de Política Lingüística



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



## KOLABORAZIOA.

Nekane Goikoetxea,  
“(H)erri zo(o)ma”. **05.**

## IRITZIA.

“Irlandako gazteria”  
(Gazte Asanblada).

**06.**

## KIROLAK.

Arkaitz Astiazaranen  
bidaiaren kronika,  
Emakumezkoen II.

Pala Txapelketa... **07.**

## EUSKAL JAIA.

Argazki bilduma.

**08-09.**

## BERRIKETAN

GAZTEA. **11-14.**

## ALBISTEA.

“Oteizaren hazia.

Eskola esperimentale-  
tik Debako Arte

Eskolara”. **15.**

## LABURRAK.

Ipuin kontaketak  
Deban, Mintzalagunak

egitasmoa, Bertso

Finalerako sarrerak,

Deba ibaia garbitzen...

**16-17.**

## ZERBITZUAK. **18.**



*Berriketan*-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitako enrantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) edo [koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com).

## Hau da gure aukera

San Roke jaixetako egitarauan Debako Ikastolaren sorrerari egin zaio aurtengo honetan aipamena. 50 urte pasa direla euskara ez hiltzeko 1963an debar talde hark hartutako erabakitik, eta, hori irakurtzean, ezin izan diot ideiak uztartzeari laga. Hasierako talde haren lehenengo aktan jasotzen den bezala, Antón Allica ikusten dugu eta hara non nire lagun eta Antonen alaba den Ainhoa ere hor dabilen, gure Euskal Herriko nafar erriberara joana, gure debar ameslarien antzera euskara salba dadin, Argia Ikastolako kide, bere esku dagoen guztia egiten!

Mende erdia pasa da eta Deban aspaldiko kontutzat hartzen dugu kalean euskaraz normaltasunez hitz egin ezin zitekeen garaia; baina, Debatik kotxez 2 ordu eskasera, Tuteran, kalean euskara entzun eta irakurtzea Madrilen entzutea bezain arraroa gertatzen da; bihotzean min ematen du, ordea, Euskal Herrian gaudela jakiteak.

Debarrak gure ama-hizkuntzan trebatuak izan garen eta diren bezala, Erriberako euskaldunek ere aukera berberak eskatzen dituzte. Administratiboki eremu ez baskofonoan daudela dioten arren, traba eta zailtasun guztien aurka borrokan dihardute Argia Ikastolan, Erriberako euskaldun eta euskaltzale guztiak euskararen alde egiten duten apustuaren adierazgarri baita. Baina, beraiek bakarrik ezin ditzakete oztopo guztiak gainditu. Erriberako euskararen geroa ezin gera liteke



Argia Ikastola osatzen duten 150 familiaren esku.

**Aurten Argia Ikastolari dagokio Nafarroa Oinez 2013 aurrera eramatea. Helburu bakarra du aurtengo Nafarroa Oinezekin: Argia Ikastolak bere horretan jarraitzea. Ikastolaren geroa eta Erriberako euskararena Nafarroa Oinezek izango duen arrakastan baitago.**

**Arrakastan lagundu nahi duenak bide ezberdinak ditu:**

-Ekarpen ekonomikoak eginez. Nahiz eta txikia izan, Tuterako Ikastola bideragarria izaten lagunduko du: 3035 0102 39 1020046142, 3008 0003 01 2598878821, 2100 3695 18 2210009146, 2101 2505 16 0128446333.

-Argia Ikastolarekin elkarlanean aritu nahi baduzu, modu erraz batean egin dezakezu. Zirkuituko protagonista izango zara bertan dituzten 6.000 metroetako bat erosiz. Metroaren prezioa 40 eurokoa da. <http://www.nafarroaoinez.net/eu/circuito.asp>. -edo Urriaren 20ko Nafarroa Oinez festa handian parte hartuz!

Ni banoa eta zu?

**EKIN ERRIBERA,  
HAU DA GURE AUKERA (...)**

*Itziar Arana*

## Arrano Elkartearen arriskuan

Urriaren 17an hasita, Debako Arrano Elkartearen zein Euskal Herri osoko beste ehundik gora elkarte eta taberna ixtea ekar dezakeen epaiketa martxan da. Elkarte irekia, herriko jardueretan parte hartzen duena, denontzat ezaguna dena... kendu nahi digute terrorismoaren finantziarioa aitzakia hartuta.

Hilabete hasieran, Herrira elkartearen aurkako operazioarekin, aniztasun politikoa ezabatzeko ahaleginean jarraitzeko nahia azaldu dute batzuek. Elkarbizitza demokratikora-

ko oinarri sendoak ezarri eta epaiketa politikoekin behin betiko amaitzeko garaian bizi gara, ordea, Deban eta Euskal Herri osoan.

Horregatik, urriaren 26an, Bilbon "Erasoen gainetik Euskal Herria aurrera" lemapean egingo den manifestaziora etortzeko eskatu nahi dizugu, baita Deban epaiketa politikoen aurka antolatuko ditugun ekimenetan parte hartzeko ere.

*Debako LIBRE plataforma*

**urlo**  
SERVICIOS INMOBILIARIOS  
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

**API**  
Nº 379

Higiezinaren Zerbitzuak  
Aholkularitza  
Higiezinaren Agentzia  
Komunitateen administrazioa  
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo  
Apartado 3  
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471  
Tel./Fax: 943 192 303  
[urlo@urlosi.net](mailto:urlo@urlosi.net)

**MAXI BAR**

Lersundi, 28  
Tel.: 943 191 206  
Deba (Gipuzkoa)



# NEKANE GOIKOETXEA

## (H)erri zo(o)ma

Laster izango dugu hemen santu guztien eguna. Beste jai egun batzuk ez bezala, atsegina egiten zait datorren hileko ospakizuna. Aitaren eguna, amaren eguna bezalako ospakizunei, aldiz, ez diet sinpatia handirik. Gaur egun merkatuak berrasmatu baditu ere, azken hauei aspaldiko gizarte klaustrofobikoaren zantzuak hartu izan dizkiet. Ez ditugu, beraz, etxean ospatzen. Hori bai, aitaren egunaren bueltan lehen San Jose lorak ikusten ditudanean, urtero sentitzen dut poza. Alde ederra baitago, xume eta tinko, Euskal Herriko edozein bazterretan ikusi ahal ditugun lore horixkek eta aitaren egunak sortzen didaten sentsazioaren artean. Izan ere, loreak badu interesa nola agerian hala lurrazpian.

Badu San Jose lorak errizoma deitu ohi den zurtoina. Errizoma deitzen zaio kimu zein sustraiak nonahi sortzen zaizkion landare motari. Errizomak ez du egitura hierarkikorik, edozein puntutik sortzen da kimu/sustrai berria eta hauek elkarlotzen dira auresan litekeen ordenarik gabe. Lorearen parte hori sendabelar gisa erabiltzen da kasu honetan.

Sendabelar izaerak badu, izan duenez, indar metaforikorik ere. Ez dira pentsalari gutxi izan errizoma modu metaforikoan erabili dutenak: eredu hierarkikoak gainditzen dituzten egitura sozial errizomatikoez hitz egiten digute, kultur diziplina ezberdinen arteko sorkuntza errizomatikoez eta pedagogia errizomatikoaz, orobat, kontrol soziala

gainditzen duen antolaketa errizomatikoaz. Nolabait landare batzuen ezaugarri biologikoa erabili da gizarteko botere-harremanez hitz egiteko.

Interesgarria da ikustea nola aplikatzen den ideia hau errealitatean: kultur jaialdiak, interneteko komunitateak, autogestionatutako espazioak. Jakina, ez da ariketa erraza honelako egituraketak aurrera eramatea. Harreman hierarkikoez pisu handia dute gure gizartean, ez gatoz alferrik XX. mende demoleadore batetik.

Kontrol sozialaren perfekzioa omen da herritarrak berak autoerregulatzen duenean bere jarduna ordena sozialaren eraginez. Adibide xume batera ekarrita, niri ez zait sekula burutik pasa ere egin San Roke dantza eliz aurrean dantza nezakeenik. Zalan-tzarik gabe, nire buruari jarri diodan muga bat da, gizartean "normal" izan dena inkorporatuz. Genero rol ezberdinuak, botere-guneen eta plaza publikoen maskulinizazioa... kulturalki ederki asko ikasi ditugu. Horregatik, aurten lehen

aldiz, duintasun osoz, gure taldeko neskek ikusi ditudanean erritoaz disfrutatzen, hainbeste behar ditugun askatasun ariketez pentsatu dut. Zein izan liteke hurrengo kimua? Gutako bakoitzak joka dezake errizoma legez. Baina hori bai, kimu berriak izan baden zurtoin puska baten gainean sortzen dira, beti dira kate-begi. Ez zaigu hori ahaztea komeni, ez eta loreak lurrazpiko sustraia ezkutatzen badu ere.





Debako Gazte Asanblada

## IRLANDAKO GAZTERIA

Euskal Herria eta Irlandaren arteko paralelismoak ugariak izan dira denboran zehar, hala ere, nahiz eta antzeko adierazle batzuk egon litezkeen hainbat alorretan, lagungarri baino gehiago, oztopo direla esango nuke. Belfasten daramatzadan bi hilabete t´erdiko esperientziarekin nire ikuspegia islatzen ahaleginduko naiz.

Gazteriaz ari bagara, gizartearen indikatzaile garrantzitsuenetarikoaz ari garela esan genezake. Historiak askotan erakutsi digun bezala gazteak edozein aldaketa eta mugimenduren muinean murgildurik egon dira, eta egun errealitatea ez da ezberdina. Kontuan izanik egungo krisi sistemikoa, batez ere Europan, zein eragin izaten ari den gizartearengan, ez zaigu ulerterraza egiten gazteria hain era pasiboan ikustea. Gazteria indikatzailea dela bagenion, atera kontuak...

Irlandako egoera oso zaila da eta gazteriarik zehazki begiratu gero, oraindik zailagoa. Horretaz gain, iparraldean Britainia Handiak okupaturik dituen 6 konderrien kasuan gatazka politikoaren aldaia oso kontuan hartzekoa da. Prekarietatea

nagusi da hemen eta ez dago espektatiba askorik gazteen artean, are gutxiago langile auzoetan. Bestalde, "benefits" deituriko langabetuentzako diru-laguntzei esker bizi dira gazte asko eta asko; izan ere, askoz errentagarriagoa zaie lan ziztrin batean esplotatuak izatea baino. Horrek euren espektatibetan eragin zuzena du. Hori gutxi balitz, drogen gehiegizko erabilera dezente zabaldurik dago, batez ere alkoholarena. Desaktibazioaren gako nagusienetariko bat gazterien aisialdi eremuan datza, zeinetan alkoholak espazio ikaragarri handia hartzen duen. Aisialdi eredu kapitalista erabat errotua dago Irlandan; nahiz eta, Belfasten adibidez, komunitate izaerak garrantzi handia izaten duen auzoetan, eredu indibidualista irteten da garaile.

Hala ere, ez da dena ilun. Gazteek alternatibak proposatu eta eraikitzeari ekin diote azken urteotan. Azpimarratu beharra dago zailtasun ikaragarriak daudela lehen aipatutako argudioak direla medio. Euskal Herrian askotan esaten dugu "hor daude betiko berdinak"; hemen oraindik nabariagoa da errealitate hori, basamortu handi bat dagoelako gizarte mugimenduei dagokienean. Baina horrek ez du ekiditen lan egin nahi dutenek lana egitea. 2012. urte hasieran, esaterako, Belfast hiri erdian zegoen eraikin bat okupatu eta proiektu alternatibo bat eraikitzeari ekin zioten; sei hilabetetako esperientzia hau oso positiboa izan zen, nahiz eta ondoegi amaitu ez.

Bukatzeko, esan nahiko nuke Belfasten jada hiru urte daramatzan debar gazte bat dagoela. Honek, beste gauza batzuen artean, barnetik ezagutu zuen okupatutako eraikinaren dinamika; eta, behin baino gehiagotan *Berriketan*-erako kolaborazioen bat egiteko asmotan egon dela dio. Ea egia den...

*Gilen G. B.*



Seven Clovers  
Irish pub

Gozatu gure garagardoa

Hondartza, 11 • 20820 DEBA • Tel. 943 191 295



Bar LOREA

"Orotariko tartak etxean eginak"

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095

## Euskal Herriko Altxorretan Barrena

### Txirriinduan egindako bidaiaren kronika egin digu Arkaitz Astiazaranek

Kaixo, *Berriketan*-eko irakurleok! Arkaitz Astiazaran naiz eta udaberriko nire txirriindu abenturaren berri eman nahi dizuet. Orain dela gutxi amets soil bat zena egi bihurtzea lortu dut aurtengo udaberriari: Euskal Herriko altxor berezienetan zehar txirriindu bidaia ahaztezina osatzea.

Lehen pedalkadak apirilaren 7an eman nituen Eibarren eta azkenengoak ekainaren 23an Hendaian; hori bai, 2 kilo gutxiagorekin. Guztira 4.400 km izan dira, 800 herri eta 175 mendate inguru bisitatuz. Aurtengo udaberria zinez euritsu egokitu zitzaigun eta, hortaz, behin baino gehiagotan atsedendaldi luzeak hartu beharra izan nuen, nire helburua bidaiaz disfrutatzea baitzen, eta ez txirriindu gainean sufritzea.

Gipuzkoa eta Bizkaiko etapetan fisikoki justu samar ibili nintzen, oraindik sasoiz berde samar nintzelako eta ibilbidea oso menditsua izan zelako. Egunak aurrera joan ahala gero eta errazago egin nituen kilometroak, eta Pirinioetako mendatezarrak jolas hutsa iruditu zitzaizkidan. Ibilbideko paisaia oso desberdina eta anitza izan da, ezin ahaztu, besteak beste, Bermeoko portua, Baztango harana, Bastida eta Guardiako mahastiak, Kontxako badia, Vianako hiribildu historikoa, Zuberoako etxe ikusgarriak, Beizamako lasaitasuna, Garesko zubi erromanikoa, Orreagako erromesak, Trebiñu Konderriko herrixoak, Aritxulegi mendateko indar falta, Iparraldeko pilota plazak, Larrañetako funikularra, Zallako ardo dastaketa



ieuuuuuuuuuu!!!!, Karrantzako zelai berdeak, Santa Grazirako 28 km-ko jaitsiera, Txindoki mendiaren piramide ikuspegia, Alberto eta Aitorrekin egindako etapak, Belagua gaineko errepide bazterreko elur hormak, Gipuzkoako loratutako sagarondoak, inguruko jendearen animo ahaztezinak...

Hainbat eta hainbat bizipen, eta askotan lagun onez lagunduta gainera. Nire ibileraren irudiekin 50'-ko bideo dokumentaltxo bat osatu dugu. Agirre Jauregian izango da ikusgai urriaren 29an (asteartea), 19:00etan. Ondoren, galdera erantzunen saioa egingo dugu. Guztiok zaudete gonbidatuta emanaldira!

*Arkaitz Astiazaran*

### Urrutiko intxaurrak 4, gerturatu eta 24!!

#### Ba bai, hasi dugu Emakumezkoen II. Pala Txapelketa!

Emakumeak palan ari direla entzutean, lau bat elkartu eta denbora pasa ari direla pentsatuko dute askok; baina, pasa den urtean ilusioz beterik hasi genuen abentura honek balio izan du, aurtengoa, hogeita lau emakume elkartzeko. Kanpoko bi bikote ere animatu dira!

Txapelketa hiru hilabete eskas

iraungo ditu. Hasiera urriaren 5ean eman genion, eta Gabonetan jokatu da Finala. Partidak astebururo jokatu dira, larunbat eta igandetan, hamaiketarik ordu bata bitarte.

Eta zein ohorea gurea, Kontxako Bandera irabazi duten hiru emakume debarrek (Itxaso Aramendi, Olatz

Agirregabiria eta Olatz Arrizabalaga) gure txapelketan omenaldia jasotzea! Baina hori Gabonetarako utziko dugu.

Oraingoz kanporaketa txanda hasi da eta giroa bero-bero dago. Zatoz ikustera!!

*Maite Etxeberria*

### Burdin Kurutz eta Luzaro ikastetxeak antolatutako mendi irteerak

Aurtengoa Burdin Kurutz eta Luzaro ikastetxeak 2013-2014 ikasturte honetarako Ikasleen Mendi Irteera Egutegia prestatu dugu. Bertan, inguruko zenbait mendi eta ingurune ezagutzeko aukera eskaintzen zaizue.

Irteera hauek 3. mailatik gorako ikasleei zuzenduta daude. Hala ere, guraso edo laguntzaileekin txikiagoak ere onartzen dira. Mendi irteera hauek doakoak dira ikasleentzat, Kirol Eskolarraren barruan baitaude. Bazkideek, nagusiek eta gurasoek ordaindu egin behar dute. Ibilaldiak umeei zuzenduta daude; beraz, irteera errazak eta erosoak dira. Gehienetan egun oso txangoak egiten ditugu; goizeko 8:30ean irteten gara Estalitako Pasealekutik (autobus geltokitik), eta arratsaldeko 16:00-17:00ak bueltan itzultzen gara herrira. Dena den, badira egun erdiko irteerak ere.

Ikasturte honetan ere, maiatzaren azkenengo asteburuan, zenbait baldintza betetzen badira (ekonomikoak batez ere), bi egunetako irteera antolatuko dugu. Ikasturteko azkenengo irteeran Andutz Egunean parte hartu duten ikasleen artean opari banaketa egingo dugu.

Ildatzen honen bitartez ikasle, guraso, lagun eta bazkide



zaretanok ibilaldi hauetan parte hartzea animatu nahi zaituztegu. Hona hemen ikasturteko irteeren egutegia:

**Azaroak 24:** Ernio.

**Urtarrilak 12:** Gatzaga-Degurixa-Andarto-Araotz.

**Otsailak 16:** Arantzazu-Artzanburu-Urbieta-Arantzazu.

**Martxoak 9:** Bailarako ibilaldi neurtua.

**Apirilak 13:** Kanbo.

**Maiatzak 24-25:** Bi eguneko irteera.

**Ekainak 8:** Andutz Eguna.

*Burdin Kurutz M.T. eta Luzaro ikastetxea*




## EUSKAL JAIA 2013

Irailaren 28ak irudi politak utzi dizkigu oroimenean. Bezperan motorrak berotzen hasita, haurrentzako jaialdia eta dantza ikuskizuna izan genituen herrian. Baina larunbatarekin batera iritsi zen aro berriko orain arteko Euskal Jairik jendetsuena. Herri bazkariak 700dik gora lagun bildu zituen pilotalekuan!! Marmitako txapelketa (hamabost kuadrila lehian!), kantuz kantu, dantzak, txotx-a, zozketak, kafea nahiz kopak... eta euskal musika Aldatsen eta Foruen plazan. Eskerrik asko parte hartu duzuen guztioi eta, nola ez, antolaketa lanetan aritu zaretenoi!







## Abeltzaintza ekologikoaren inguruko hitzaldi-dastatze arrakastatsua Ozio Bide elkartearen

Abeltzaintza ekologikoa ezagutzera emateko eta bertako haragi eta esneki ekologikoen kontsumoa sustatzeko helburuarekin, hitzaldi-dastatze bat antolatu zen, Ozio Bide elkartearen, aurreko irailaren 26an.

Debemenek eta Biolur Gipuzkoak antolaturiko Debabarreneko II. Aste Ekologikoaren egitarauaren barruan kokatu zen hitzaldi horretara 35 lagun inguru hurbildu ziren eta giro polita sortu zen. Bertan, abeltzaintza ekologikoei euren azaldu zituzten abeltzaintza ekologikoaren onurak eta sortu ziren galderei erantzunak eman zizkieten.

Abeltzaintza ekologikoaren ezaugarri nagusizat zera azaldu zen: abereak aire librean daudela eta baserriko belardiak dituztela elikaduraren oinarri; eta, euren elikadura osatzeko pentsuek jatorri ekologikoa eta ahalik eta gertukoena dutela. Abereen ziklo naturalak errespetatzen dira, eta, horrek animaliak osasun-



tsu haztea ahalbidetzen du, hein handi batean botiken erabilera saihestuz. Horrek guztiak haragi zein gainontzeko elikagaien kalitate ona bermatzen du, nutritiboki elikagai aberatsak lortuz. Egin diren azterketek hala aipatzen dute gainera; badirudi ekologikoen proteinek kalitate hobea dutela eta bitamina eta gatz mineral kantitate oso onak dituztela.

Hitez azaldu ez ezik, abel ekoizpen ekologikoak dastatzeko aukera ere izan zuen jendeak: moxal hanburgesak, txahal gisatua eta ardi gazta. Platerak barazki eta ogi ekologikoz lagunduta egon ziren, baita sagardo eko-

logikoz ere. Dastatutako elikagai guztiak ekologikoak eta bailara bertakoak edo ingurukoak izan zirela azpimarratu nahi da. Izan ere, produktu hauek gero eta eskuragarriago ditugu herriko denda zein azoketan asteroko erosketan osatzeko.

Biolurretik kontsumitzaileak animatu nahi ditugu garaiko eta bertako elikagai ekologikoak egunerokotasunean kontsumitzera, gure osasunean eta ingurugiroan ez ezik, ekonomia lokalean duten eragin positiboagatik ere.

Informazio gehiagorako: [biolur@biolur.net](mailto:biolur@biolur.net) (943 76 14 47).

Leire Ibarretxe (Biolur Gipuzkoa)



## Aurrera darrai auzo konpostajea egiteko proiektuak

Maiatzean Deba eta Itziarren auzo konpostajea egiteko kanpaina martxan jarri zuen udalak eta herritarrei bi informazio bilera eskaini ondoren **67 familia** prest azaldu dira proiektuan parte hartzeko.

Debako udala, herrigunean **konpostajerako 2 gune** atontzen hasi da eskari honi erantzuna emateko; bata Itur kalean dago (igogailuaren ondoan) eta bestea Mogel kalearen hasieran. Hauek, itxitako egurrezko etxolez osatuak egongo dira eta parte-hartzaileek barruan utziko dituzte beraien etxeetako hondakin organikoak. Horrelako azpiegiturak inguruko beste udalerrietan jada funtzionamenduan daude, konpost helduaren emaitza onak lortuz. Bestalde, jarraipen zehatz baten bidez, udalak beharrezko baliabideak jarriko ditu gune

hauen funtzionamendua egokia izan dadin.

Gainera, azpiegiturari erabilera egokia emateko, izena eman duten familiei formazio saioak emango dizkie udalak gunean bertan, **urriaren 19an** goizez eta **urriaren 22an** arratsaldean, bertan jaso ditzaten argibideak, konposta egiteko eskuorri bat eta ontzia. Formazio hauen deialdi zuzena urrian zehar egingo zaie izena emandako familiei, eta formazioa jaso ondoren hasiko dira auzo konposta egiten. Honez gain, prozesu osoan zehar sortzen diren zalantzak argitzeko laguntza eskainiko du udalak, parte-hartzaileek konpostajea egoki egin dezaten.

Auzo konpostajea egin nahi duenak oraindik ere izena eman dezake udalera deituz (943 19 28 40) edo helbide



Etxarri Aranatzeko auzo konpostajerako gunea.

honetara idatziz: [konposta@deba.net](mailto:konposta@deba.net).

Informazio gehiagorako, kontsultatu ondorengo esteka:

[www.deba.net/eu/udala/udalaren-egitura-eta-sailak/ingurumena/hondakinak/auzo-konposta](http://www.deba.net/eu/udala/udalaren-egitura-eta-sailak/ingurumena/hondakinak/auzo-konposta).

Debako Udaleko Ingurumen Saila



**BERRIKETAN GAZTEA**

Mendata BHI-ko Prentsa Tallerrean Sortua.  
**2013ko urria**

## Institutura buelta udako oporren ondoren

Mendata institutuan irailaren 6an hasi zuten ikasleek ikasturtea. Aurtengo ikasturtean 201 ikasle daude zentroan. Guztira hamaika gela daude: lehenengo mailan hiru, bigarrenen hiru, hirugarrenean bi eta laugarrenean beste hiru. Irakasleei dago-kienez 27 irakasle daude; horietatik sei arden etorri berriak dira.



Aurtengoa murrizketen urtea izan da eta zuzendaritzak adierazten du hori aurrekontuetan nabarmentzen dela. Horregatik, ikasleei eskatu diete argia eta ikastetxeko materiala aurretzeko eta alferrik ez gastatzeko. Etorkinei euskara irakasteko orduak ere gutxitu egin dituzte eta irakasleek beraien ordu libreetatik atera behar dute denbora lan hori betetzeko.

Hainbat proiektu daude aurtengo ikasturteari begira, hala nola Hizkuntza Normalkuntza Plana euskararen erabilera bultzatzeko. Irakurketa eta irakasleek teknologia berriak erabiltzea bultzatzeko proiektuak ere badituzte.

**EGILEAK:** Aitor Gonzalez, Unai Matias, Ekaitz Zubimendi, Kimetz Alberdi, Maite Aldabaldetreku eta Julen Aristi.



# ELKA RRIZ KETAK

## Aritz Meabebasterretxea Institutuko irakasle berria eta prentsa tailerreko arduraduna



### Nongoa zara?

Etxebarrikoa naiz. Debatik 25 kilometrora dago.

### Ezagutzen al zenuen Deba lehendik?

Bai, nire familiak etxea zeukan Deban eta txikitan udan etorri izan naiz. Oraindik gogoan daukat etxe hartan egoten zen hezetasun usaina eta tetrabrikoko esnea lehenengo aldiz Deban edan nuela, nire etxean baserriko esnea edaten zen eta.

### Non egin duzu lan hona etorri aurretik?

Leku askotan, urtero aldatzen dut lantokiz. Iaz Hernanin egon nintzen, Mutrikun, Elgoibarren, Azpeitian...

### Zein izan da zure lehenengo inpresioa ikastetxe honetan?

Inpresioa ona izan da, institutu berria eta modernoa da. Irakasleak jatorrak dira. Urte ona izatea espero dut.

### Zer irakasten duzu?

Euskara 1., 2. eta 3. mailetan eta gaztelera 2. mailan. Eta baita prentsa tailerra ere.

### Gustura al zaude lanarekin?

Bai, nahiko hurbil nago etxetik. Zerbait txarra esatekotan, ikasgai asko ematen ditut eta dena prestatzeko lan handia dut.

## Idrisha Sene Pasa den urtean ikastetxean hasi zen ikasle afrikarra



### Noiz eta nondik etorri zinen Debara?

Ganbriatik etorri nintzen, iaz.

### Deba gustatzen al zaizu?

Bai, oso polita da.

### Euskara ikastea zaila egin al zaizu?

Ez, nahiko azkar ikasi dut.

### Zer moduz hasi duzu ikasturte berri hau?

Ondo, irakasle eta ikasle berriekin.

### Gustura al zaude irakasle berriekin?

Ez asko. Lehenengo urtean hobeto.

### Asko kostatu zaizu lagunak egitea?

Ez, oso atseginak izan dira nirekin etorri nintzenetik.

# ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK

Oraingo honetan, Mendata ikastetxean eskolaz kanpoko ekintzei buruzko galderak egin dizkiegu ikasleei:

- 1.- Egiten al duzu eskolaz kanpoko ekintzarik?
- 2.- Asteko zer egunetan?
- 3.- Denbora asko kentzen dizu?
- 4.- Gustuko al duzu?
- 5.- Besterik egingo al zenuke?
- 6.- Zein ekintza burutzen duzu?



## Haritz Alberdi:

- 1.- Bai, egiten dut.
- 2.- Astearte eta ostegunetan.
- 3.- Bai, etxeko lanetarako.
- 4.- Bai, gustuko ditut.
- 5.- Bai, ingelesa ikasiko nuke.
- 6.- Futbola.



## Julen Ayastuy:

- 1.- Bai, egiten dut.
- 2.- Astelehen, astearte eta ostegunetan.
- 3.- Ez, ez dit denbora askorik kentzen.
- 4.- Bai, gustuko ditut.
- 5.- Ez, hauekin gustura nago.
- 6.- Banda, tronpeta eta futbola.



## Joseba Beitia:

- 1.- Bai, egiten dut.
- 2.- Astearte eta ostegunetan.
- 3.- Ez, pixka bat.
- 4.- Bai, asko.
- 5.- Ez, gustura nago horrela.
- 6.- Futbola.



## Beñat Escudero:

- 1.- Bai, noski.
- 2.- Astearte eta ostegunetan.
- 3.- Ez, ez asko.
- 4.- Bai, asko.
- 5.- Ahalko banu bai, baina Deban futbolaz aparte ez dago ezer.
- 6.- Futbola.




## Maddi Lariz:

- 1.- Bai, egiten dut.
- 2.- Asteazken eta ostiraletan.
- 3.- Ez, ia ezer.
- 4.- Ez, aspertu egiten naiz.
- 5.- Ez, horrela ondo nago.
- 6.- Ingelesa.



## Ibon Deba:

- 1.- Bai.
- 2.- Astearte, ostegun eta ostiraletan.
- 3.- Bai, nahikoa.
- 4.- Bai, asko.
- 5.- Ez, ez dut gogorik.
- 6.- Futbola.



# DenBord-pasa

## TXISTEA

\*Andre bat harategira sartu da eta zera esan dio harakinari:


-Txerri-buru hori, mesedez!

Eta harakinak erantzun dio:

-Barkatu, andrea, baina hori ispilu bat da!



## ZAZPI EZBERDINTASUNAK



## KOMIKIA



WWW.BITSTRIPS.COM

### LAGUNTZAILEAK:



### BABESLEAK:



Debako Udala




### PRENTSA TALDEA 2013-2014

Aitor Gonzalez	Maite Aldabaldetrekua
Alex Martija	Alex Alonso
Unai Matias	Julen Aristi
Ekaitz Zubimendi	Josu Arufe
Kimetz Juaristi	Iñigo Egaña

Koordinatzailea: Aritz Meababasterretxea

## “Oteizaren hazia; Eskola esperimentaletik Debako Arte Eskolara”

Egitarau zabala antolatu da artista oriotarrak herrian utzitako arrastoa gogoratu nahian



Duela 44 urte, 1969an, Jorge Oteizak bere ametsa errealtate bihurtu eta Deban hezkuntza proiektu bat abiatu zuen. Lehen hazia izan zen hura, sustrai sendoak eman zituena eta gaur egun ere bizirik dagoen proiektua da. Izan ere, guztiok ezagutzen dugun Debako Arte Eskola sortzeko bidean paper garrantzitsua bete baitzuen eskultore oriotarrak.

Debako Arte Eskolak edo Eskulangintzarako Irakaskuntza Zentroak 1981. urtetik dihardu lanean; baina zentroaren jatorria Jorge Oteizak 1969an Deban sortutako Eskola Esperimentalean dago. Garai latzak ziren haiek, diktadura frankistaren eraginez; baina, Oteizak bazuen amets bat: artista berriak hezi eta prestatzeko zentro baten beharra ikusten zuen, artistak gizartea eraldatzeko gai izan zitezten.

Amets hori errealtate bihurtzeko aukera Deban aurkitu zuen Oteizak, eta gaur egun ezagutzen dugun Kultur Elkarteak eraikinean sortu zen Arte Eskola Esperimentala.

Artista oriotarrak 1972an utzi zuen eskola hura, baina zentroa sei bat urtez egon zen zabalik. Hainbat arrazoi tarteko, proiektuaren ibilbidea kolokan

egon bazen ere, Kultur Elkarteak hartu zuen Oteizak sortutako eskolaren lekukoa, eta zeramika ikastaroak eskaintzen hasi ziren eraikin berean.

Bada, kokalekua aldatu badu ere, hortxe kokatzen da Arte Eskolaren jatorria. Harrezkero (1981etik) zabalik dago Irakaskuntza Zentroa. Eskola irekia da, diziplina anitzekoa eta modernoa, aspaldiko lanbide, teknika eta irakaskuntza eskaintzen dituen, baina, garai berrietara moldatuta; eta horiek esperimentazio izaera ere ematen diote, gauza ezohikoa Euskal Herrian.

Jorge Oteizak herrian utzitako arrastoa gogorarazteko egitarau oparoa antolatu dute urrian zehar Debako Udalak, Kultur Elkarteak eta Debako Arte Eskolak elkarlanean, artista oriotarraren heriotzaren 10. urtemuga betetzen den honetan.

Orrialde honen azpiko aldean aipatzen den erakusketa grafikoaz gain, urriaren 6an Arte Eskolako tailerren erakustaldia egin zen estalitako pasealekuan (zeramika, grabaketa kalkografikoa, brontze galdaketa artistikoa, harlan-keta eta zurlanketa, eta diseinu, marrazketa nahiz pintura), baita klarion tailer

bat ere. Ekimen irekia izan zen, guztiontzako prestatua, eta gustura asko aritu ziren haur ugari hitzorduan. Hilaren 8an, “Oteiza eta Deba” izenburuko hitzaldia eta mahai-ingurua burutu zen Kultur Elkartearen, Maider Zubikarai alkatea, Rafael Castellano idazlea eta Mikel Campo Debako Arte Eskolako zuzendariaren parte-hartzearekin. Urriaren 13an haurrentzako jardunaldiak izan ziren (Gaztelekuak eta Kolore Anitz Aisialdi Taldeak antolatuta), Oteizari buruzko “Fragmentos” filma eskaini zen hilaren 15ean, eta urriaren 18an Patxi Santamaria izango da Kultur Elkartearen, “Oteiza. Testuak eta beste poemak” bakarriketa saioa eskaintzen.

### “AMATASUNA”

Egitarauari urriaren 21ean (astelehena) emango zaio amaiera. Hitzordua 13:00etan izango da, Itziarren, Oteizaren “Amatasuna” eskulturari buruz Willy Berasaluze artista debarrak sortutako gogoangarri informatiboa inauguratuko da eta.

### Erakusketa grafikoa

Urriaren 24a bitarte, Oteizaren omenez antolatutako erakusketa grafikoa izango da ikusgai Agirre Jauregiko erakusketa gelan. Bertan, Debako hainbat familiak modu anonimoan utzitako grabatu originalak bildu dituzte. Oteizaren lanak ez ezik, ondorengo artisten grabatuak ere ikusgai daude: Joan Miró, Antoni Tàpies, Eduardo Chillida, Manolo Millares, Fernando Beorlegui, Antonio Saura, Agustín Ibarrola, Luis Gordillo, Ramos Uranga, Jose Luis Zumeta, Barry Flanagan, Miquel Navarro, Andres Nagel, Miquel Barceló eta J.L. Baroja Collet.



## Ipuin kontaketak Deban

Herritarrak herriko neska-mutilei kontari.  
Entzuleek gozatzeko, kontalariek disfrutatzen...

Uda amaitu berri da, eta eskolara edo lanera itzultzeko egunak iritsi dira; nik uste, orokorrean, denok gustuko dugula uda, gauza desberdinak egiteko aukerak ugaltzen zaizkigu: hondartza, mendia, ala kalea; hiru aukerak, eskura. Bakoitzak aukera dezala nahiago duena. Animalia askoren neguko lozorroa amaitzen denean bezala, gu ere kalera bultzatzen gaitu eguraldi onak, eta umore hobean aurkitzen gara.

Halere, udazkenarekin hain lotua dagoen tristura ala melankoliarengandik ihes egingo dugu; udazkenak ere gauza polit asko baditu: ikasturte berria, ilusio berriak, asmo berriak, helburu berriak, zergatik ez?

Eta martxan jarri nahi izan dugun ekintza berri horietako bat ipuin kontaketa da. Udaletxeko Euskara Batzordetik, Amaiak proposamen hau luzatu zigun guraso batzuei: ea animatuko ginen haurrei ipuinak euskaraz kontatzera. Euskaraz burututako ekintza bat zein gure arteko hizkuntza euskara izango den; nagusien artekoa eta baita nagusi eta haurren artekoa ere.

Ipuin kontalari gisa arituko garenok gogotsu heldu diogu ardura berri honi; patrika batean gogoa eta ilusioa daramatzaugu, eta bestean urduritasun eta beldur apur bat ere. Batzuek, irakasleak izanik, esperientzia apur bat badute; beste batzuen esperientzia beraien haurrei kontatutako saioetara



Juanma Oartzabal

mugatzen da. Halere, ahal dugun ongien egiten eta pasatzen saiatuko gara; ipuinen magia haurrei helaraztea izango da gure helburuetako bat. Irailean Miriam Mendoza ipuin kontalariak saio polit bat eskaini zigun liburutegian; gomendioak, iradokizunak eta ideiak partekatu zituen gurekin; plazer bat izan zen zure ipuinak eta zu entzutea, eskerrik asko Miriam!

### Saio ezberdinak, adinaren arabera

Adin desberdinetarako saio desberdinak egongo dira: 3 eta 5 urte bitartekoentzat, 6 eta 8 urte bitartekoentzat eta 9 eta 11

urte bitartekoentzat. Agirre Jauregiko Ispiluen gelan burutuko ditugu, eta hila-bete bakoitzeko lehenengo igandean izango dira printzipioz, arratsaldez, baina aldaketak egon litezke, eta adi egon zaitezte kalean jarriko ditugun kar-teletara.

Eta noski, norbait animatuko balitz ipuinak kontatzera, jar dadila gurekin kontaktuan ([euskara@deba.net](mailto:euskara@deba.net)).

"Hau hala bazan ala ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila zuek nahi duzuen plazan!".

Amaia Larrañaga

## Omenaldia Itziarko jubilatuari

Pasa den uztailaren 25ean, Santxo egunez, Itziarko 70 bat jubilaturari omenaldia egin zitzaion, honako jai giroan: lehenengo, meza egin zuten santutegian eta ondoren bazkaria Salegi jatetxean, musika eta guzti. Bazkaldu ostean, berriz, opariak banatu zituzten emakume eta gizon helduek eta erromeriarekin jarraitu zuten arratsaldea aurrera joan ahala. Esker ona agertu zuten omenaldia ospatu zutenek.

Iñaki Elosua





## Zabalik dago Mintzalagun programan izena emateko epea

“Supermintzalagun izan nahi? Elkartu gurekin!”. Horixe da mintzalagun berriak bilatzeko kanpainan zabaldu duten mezua.

Duela 20 urte sortu ziren lehen mintzalagun taldeak Donostian, eta aurreko ikasturtean 5.500 mintzalagun elkartu ziren Euskal Herri osoan hedatuta dauden egitasmoetan. Jasone Mendizabal Topaguneko zuzendariak aurtengo kanpainaren aurkezpenaren nabarmendu duenez, “egunerokoa euskararen alde beren alea jartzen duten supermintzalagunak omendu nahi ditugu, ahalegin horri esker biziberritzen delako euskara, eta superheroiak bezala, sarri ikusezinak izaten direlako norbanako horiek guztiak”.

Mintzapraktika egitasmoek euskaraz aritzeko ohiturarik ez duten lagunak ohitura dutenekin batzen dituzte, erabileran eragiteko eta hizketarako konfiantza eta gune berriak eskaintzeko, eta urtetik urtera gora egiten du izen-emateak. Lau edo bost lagunek osatutako talde txikiak dira, eta astean behin biltzen dira.

Egitasmoan parte hartzeko baldintza bakarrak euskaraz komunikatzeko gai izatea eta astean ordubetez batzeko konpromisoa hartzea dira.

### Azaroaren 12ra arte

Deban, Zuhatza Euskara Elkarteak antolatzen du Mintzalaguna ekimena. Udalak, Eusko Jaurlaritzak eta



Gipuzkoako Foru Aldundiak babesten dute, eta euskaltegiaren eta Topagunearen laguntza ere badu.

Ikasturte berriarekin batera, zabalik dago jadanik izena emateko epea. Izen-ematea azaroaren 12ra arte egongo da zabalik eta horretarako interesatuak Zuhatza elkartearekin jarri behar dira harremanetan. Izena emateko edo bestelako edozein zalantza argitzeko, idatzi [koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com) helbidera, deitu 943 19 13 83 telefono zenbakira edo pasa euskara elkartearen bulegotik (Ifar kalea, 12 beheko).

## Bertso Txapelketa Nagusiko finalerako sarrerak Zuhatzen

Abiatu da dagoeneko 2013ko Bertso Txapelketa Nagusia eta abenduaren 15ean izango da finala, Barakaldoko BECen. Zuhatza Euskara Elkarteak finalerako sarrerak jarri ditu salgai; bonorik eta sailkapen faseetako saioetako sarrerarik ez du izango, ordea, elkarteak.

Abendura bitartean lehiaketan parte hartuko duten 43 bertsolarietatik zazpi sailkatuko dira finalera, 2009ko txapelketako irabazle Maialen Lujanbioz gain. Finalerako sarrerez (30 euro), bazkariak (18 euro) eta autobusaren antolaketaz (13 euro) arduratuko da Zuhatza -bertsozale elkarteak bazkideen eta gazteen sarrerarik ez dauka; horiek [www.bertsozale.com](http://www.bertsozale.com), [www.bertsosarrerak.eu](http://www.bertsosarrerak.eu) edo takilan erosi behar dira-. Sarrerak erosteko azken eguna azaroaren 26a izango da (bulegoko ordutegia: astelehen eta astearteak, 18:00etatik 20:00etara).

Edozein zalantza argitzeko idatzi [koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com) helbidera edo deitu 943 19 13 83 telefono zenbakira. Informazio gehiagorako: [www.bertsozale.com](http://www.bertsozale.com).



## Ehun bat boluntario elkartu ziren Deba ibaia garbitzeko

Deba ibaiaren kontserbazioan eta hobekuntzan herritarrak protagonista bihurtu asmoz, Debegesa Garapen Agentziak ibaia auzolanean garbitzeko ekimena antolatu zuen urriaren 5ean Deban, Udalaren eta herriko hainbat kirol eta kultur elkarteren laguntzarekin.

Ekimenarekin bat egin zuten elkarteak hauek dira: Deba-Itziar Xtreme Triatloi Taldea, Debako Gurutze Gorria, Burdin Kurutz Mendi Taldea, Zubi Guraso Elkarte, Yako Surf Eskola, Zurrunbilo Surf Kirol Elkarte, Amaiak Bat Futbol Taldea, Deba Kayak Piraguismo elkarte eta La Lubina.

Guztira 90 bat boluntario hartu zuten parte garbiketan, horietako asko haurrak, eta bildutako zakar poltsekin 4 edukiontzi bete zituzten goraino. Aurten aurreko urteetan baino hondakin gutxiago atera dute, jendearen kontzientziazioari esker batetik, eta bestetik, azken urteetan egindako garbitze lanei esker.


Goizeko 10:30ean egin zuten hitzordua boluntarioek Anes Arrinda pasealekuan eta antolatzaileen azalpenak entzun ostean, taldeka, ordubetez aritu ziren zaborra jasotzen, itsasbehera aprobetxatuz. Lana amaitutakoan luntxa eskaini



zitzaian, indarrak berreskuratzeko. 15:30ean iritsi ziren bigarren txandako boluntarioak, Deba Kayak taldeko kideak. 20 bat lagun ibili ziren ibaia barrutik garbitzen, piraguak baliatuz. Hauei ere, arratsaldeko lana amaitutakoan, merezitako luntxa eskaini zitzaian.

Debegesa Garapen Agentziak eskerrak eman nahi dizkie parte-hartzaile guztiei.

*Debegesa*



## Agenda

**Urriak 19, larunbata**

-21:00. **Erromeri afaria**, Mikel eta Laja trikitilariekin Itziarko Hostalean.

**Urriak 20, igandea**

-Nafarroa Oinez, Tuteran.

**Urriak 21, astelehena**

-13:00. Oteizaren "Amatasuna" eskulturari buruz Willy Berasaluzek sortutako gogoangarri informatiboaren inaugurazioa Itziarren.

**Urriak 25, ostirala**

-Euskadiren Eguna. Gernikako estatutua sinatu zeneko 34. urteurrena.

**Urriak 29, asteartea**

-19:00. "Euskal Herriko Altxorretan Barrena". Arkaitz Astiazaranez txirrinduan egindako bidaiaren inguruko bideo emanaldia, Agirre Jauregian.

**Azaroak 1, ostirala**

-Itziarko Peria. Goizetik hasita, ganadu feria.

**Azaroak 2, larunbata**

-Merkatu Txikia, estalitako pasealekuan. Goizean.

**Azaroak 3, igandea**

-17:00. **Ipuin kontaketa**. Informazio gehiagorako: aldizkari honetako 16. orrialdea edo [www.deba.net](http://www.deba.net).

**Azaroak 8 eta 22 (ostiralak)**

-**Pako Aristik** (azaroaren 8an) eta **Lorea Agirrek** (azaroaren 22an) hitzaldi bana eskainiko dute Debako Agirre Jauregian. **Euskararen normalizazioan** orain arte egin edo lortu denaz jabetzea eta, batez ere, hemendik aurrera egiteko dagoenaz, egiteko moduz eta zertarakoaz pentsatzen joatea da hitzaldi hauen helburua. Hizlari bakoitzak bere ikuspuntua eskainiko digu. Udaleko Euskara Batzordeak antolatu ditu hitzaldiak. 18:00etan hasiko dira, Agirre Jauregian.

**Neguko ordutegia Turismo Bulegoan**

-Debako Turismo Bulegoak neguko ordutegia izango du aurreantzean (astelehenetik ostegunera: 10:00-14:00; ostiral eta larunbatak: 10:00-14:00 eta 17:00-19:00, eta igandek: 10:00-14:00). Telefonoa: 943 19 24 52.

**Sari banaketa: Gure Balioak 2013**

-**Gure Balioak Sariak** Debabarreneko eskualdean gizarte balioen arloan nabarmendu den pertsona edo entitate aitortzea eta saritzea du helburu; aurtun laugarren edizioa beteko du.

Debegesa Garapen Agentziak Udalaren laguntza

rekin antolatuta, sari banaketa ekitaldia Agirre Jauregiko Ispiluen Gelan egingo da, urriaren 23an, arratsaldeko 18:30ean, eta herritar oro dago gonbidatuta. Bertara hurbiltzerik ez dutenek, ekitaldia zuzenean streaming bidez ikusteko aukera izango dute.

**Erakusketa grafikoa Agirre Jauregian**

-**Oteizaren hazia** egitarauaren baitan antolatutako erakusketa grafikoa ikusgai dago Agirre Jauregiko erakusketa gelan, urriaren 24a arte. Bertan, Debako hainbat familiak modu anonimoan utzitako grabatu

originalak bildu dituzte -artista ezberdinek egindako lanak dira guztiak-.

Erakusketa egunero dago zabalik (astelehenetik larunbatera: 18:00-20:00; igande eta jaiegunetan: 12:00-14:00).

**V. Animadeba Gortina Lehiaketa**

-Debako Udalak V. Gortina Lehiaketa jarri du martxan **Animadeba 2014** animazio zinema jaialdirako.

Nahi duenak parte har dezake lehiaketan, jaioterri eta bizilekuak direnak direla, eta nahi adina gortina aurkez daitezke. Edozein animazio teknika onartuko da, baina beharrezkoa izango da gortina guztiek ANIMADEBA 2014ko logoa edukitzea.

Lanak bidaltzeko epea abenduaren 13an amai-



tzen da, 14:00etan. Saria 700 eurokoa izango da.

Gortina lehiaketari buruzko informazioa eta oinarriak: [www.deba.net](http://www.deba.net) atari digitaletan.

**Euskadiko XXIV. Hiru-Txirlo Txapelketa**

-Urriaren 19an San Andreseko (Soraluze) bolatokian abiatzen da Euskadiko XXIV. Hiru-Txirlo **Bolo Txapelketa**. Hurrengo jaurtialdiak azaroaren 9an (Iruzubietan), azaroaren

16an (Garmendipen) eta azaroaren 23an (Barinagan) izango dira. Saio guztiak arratsaldeko 17:00etan hasiko dira eta sari ezberdinak daude jokoan. Izen-ematea: 5 euro.

**ZAINZAKO BOTIKA**

Egunez, 09:00etatik 22:00etara



Zalduegi: **urriak 18, 19, 20, 28, 29, 30, 31.**

**azaroak 15, 16, 17.**

Burgoa Zuazo: **azaroak 1, 2, 3, 11, 12, 13, 14.**

22:00etatik 09:00etara, Elgoibarren botika bat guardian.

**DEBAKO BOTIKAK**

ZALDUEGI: 669 262 201

BURGOA ZUAZO: 667 338 890

Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: urriak 19 eta 26  
azaroak 16

BURGOA ZUAZO: azaroak 2 eta 9

9:30 - 13:30




**MULTIÓPTICAS UZURI**

OSTOLAZA, 7 • 20820 DEBA  
TEL. 943 19 21 92

**MULTIÓPTICAS Uzuri**

ZURE  
ENTZUMENA  
ZAINTZEN



**Mikel**

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206  
Tel.-faxa: 943 191 774  
Hondartza, 10 - behea  
**20820 DEBA (Gipuzkoa)**  
mikeliturgintza@euskalnet.net  
www.mikeliturgintza.com

**A D**

**ASESORIA DEBA C.B.**

JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617  
Eduarne: 669 895 619

Tel.: 943 192 127  
HONDARTZA, 2 - BEHEA Fax: 943 192 482  
20820 DEBA (GIPIZKOA) ase.deba@teletelne.es

**atari**

etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA  
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA  
Tel: 943192263  
www.atarideba.com

**Lizaso**  
Autozerbitzua

Lersundi kalea, 21  
Tlfnoa: 943 19 27 29



**ITXAS GAIN**  
Taberna  
ITXAS GAIN

Hondartza ondoan  
Urte guztian zabalik

Natarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576  
20820 DEBA

**oskarbi**

Menua  
Ogitartekoak  
Plater Konbinatuak

Lersundi kalea, 9  
Tel. 943 029 488 - 618 544 014  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

**ALBIZU**  
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

**IGARZA**  
TABERNA

Ostolaza, 5  
DEBA  
Tel.: 943 191 197

**IZENBE**


- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA




**GENOVEVA**  
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Telf.: 943 191 818



**ZALBURDI**

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03



**MAZZANTINI**  
TABERNA

Sakagin, 7 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel. 943 192 422

**BOKATAK - PINTXOAK**  
ETA GIRO ONA

**RAIKETAK S.L.**  
**SAGARMIÑA**

Hondartza, 3-4 behea - Apartado, 31  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel./Fax: 943 192 249  
Mugikorrek: 629 639 685 / 629 641 940  
sagarmina@sagarmina.com  
www.sagarmina.com

**Bordatxo**  
JATETXEA

Berezitasuna Parrilan:

- Asteburuko menuak - Parrilan menuak - Mokadu eta pintxoak
- Plater konbinatuak - Etxera eramateko jakiak - Ospakizunak

Zesterokua Plaza  
Tel.: 943 029 376  
Bazkariak: 13:00 / 16:00  
Afariak: 20:00 / 23:00



Euskaraz hitz egiteko saioak  
Izena emateko azken eguna: **azaroak 12**

**INFORMAZIOA:**

Zuhatza Euskara Elkarte  
Iifar kalea 12, behea  
943 19 13 83 (koordinatzailea@zuhatza.com)



**emaiozu euskarari!**  
dale al euskeral



**DEBABA UDAL EUSKALTEGIA**  
DEBA: Ifar-kalea, 12  
Tel.: 943192 236

**UDAL EUSKALTEGIAK**  
ikasturteacurso 13/14



**emaiozu euskarari!**  
dale al euskeral

**ikasturteacurso**  
**13/14**  
matrikula zabalik  
matrícula abierta

**IKASTAROAK**

**Aurrez aurrekoak:** 2,3 edo 4 egun astean, mailaren arabera.  
Autoikaskuntza interneten bidez  
**Ikastaro bereziak** (enpresak, AISA, merkataria eta ostalaritza)  
**Perfilak** (Administrazioa, Osakidetza, Hezkuntza, ...)  
**HABEren 1., 2., 3. eta 4. mailak**  
**EGA**

**16 urtetik gorakoentzat**

**DIRU-LAGUNTZAK ETA BEKAK**  
Informa zaitez Udal Euskaltegian!

**MATRIKULA ORDUTEGIA**  
**DEBA: 09:30 - 11:30 / 18:30 - 20:30**